# DONEJAKUE BIDEA EUSKADIN
## EL CAMINO DE SANTIAGO EN EUSKADI




# GOMENDIOAK
## RECOMENDACIONES

Planifikatu hurrengo eguneko etapa: Erromesen aterpe asko udan bakarrik irekitzen dituzte

Komeni da Bidea bakarrik ez egitea.

Ez ahaztu dokumentazioa, kredentziala eta dirua –edo kreditu-txartela–, eta kontu handia izan baliozko objektuekin.

Eraman etapa bakoitzerako janari eta edari nahikoa eta larrialdietako botika-kutxa.

Eraman oinetako eta arropa egokiak, eguraldiaren iragarpena kontuan hartuta.

Komeni da mugikorraren bateria ongi beteta eramatea.

Zure segurtasunerako, jarraitu senaile ofizialei. Trazadura diferente bat adierazten duten gezi horirik aurkituz gero, ez jarraitu halakoei.

Errespetatu ingurunea eta gainerako erromesak.

*Planifica la etapa del día siguiente: Muchos albergues de peregrinos sólo abren en verano.*

*Es aconsejable realizar el Camino en compañía.*

*No olvides documentación, credencial y dinero –o tarjeta de crédito- y ten cuidado con los objetos de valor.*

*Lleva comida y bebida suficiente para cada etapa y botiquín de urgencia.*

*Lleva calzado y ropa adecuado teniendo en cuenta la predicción del tiempo.*

*Es aconsejable llevar la batería del móvil bien cargada.*

*Por tu seguridad, sigue la señalización oficial. Si encuentras flechas amarillas que indican un trazado diferente, no las sigas.*

*Respeta el entorno y a los demás peregrinos.*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Arabako Lautadako paisaia atsegina amaitzear dago. Berrogeita hamar kilometro baino gehiago profil leunen artean egin ostean, San Miguel mendateak aldaketaren hasiera dakar. Erromesak Gasteiz atzean utzi duelarik, bidea zereal-soroen artean murgiltzen da berriro ere, N-I errepidearen paralelo doala, eta aurreko etapetan bezala, herri soil bezain abegikorrak igaroko ditu. Euskal lurrak behin betiko atzean uzteko ez da asko falta, baina horren aurretik, Trebiñu zeharkatu behar da, Arabaren bihotzean dagoen lurralde burgostarra.

*Los apacibles paisajes de la Llanada Alavesa tocan a su fin. Tras más de medio centenar de kilómetros entre suaves perfiles, el Portillo de San Miguel es un telón montañoso que señaliza el cambio de tercio. Una vez el peregrino se despide de Vitoria-Gasteiz, el sendero se sumerge de nuevo entre campos de cereal, mientras corre paralelo a la N-I y atraviesa pueblos sobrios y acogedores como los de las jornadas anteriores. Queda muy poco para abandonar las tierras vascas pero, antes, se atraviesa el Condado de Treviño, un enclave burgalés en el corazón de Álava.*

22 km 273 m 4h 15'






# Bidezatia / *Tramo*
## VITORIA-GASTEIZ > SUBILLANA GASTEIZ / SUBIJANA DE ÁLAVA

km 0 ····· **VITORIA-GASTEIZ.** "Arbendolatik" atera eta katedral berriaren ondotik igaro ostean, Gaztelako Atea eta Cagigal kaleetan barrena Armentiarantz joko dugu; Armentian San Prudentzio Basilika erromanikoa aurkituko dugu. Erromesen ibilbidetik goazela, biribilgune batera iritsiko gara eta A-4163 errepidearen bazterbidetik jarraitu behar dugu, Gometxa herri txikiraino.

km 5,6···· **GOMETXA.** Parrokia-elizaren parean, eskuinaldera auzo-errepide batetik joko dugu hego-mendebalderantz, laborantza-lurretan barrena. Zumeltzura daraman A-4102 errepidea zeharkatu eta Subilla Gasteizera iritsiko gara.

---

km 0 ····· ***VITORIA-GASTEIZ.*** *Salimos de "la almendra" y tras pasar junto a la catedral nueva seguimos por las calles Puerta de Castilla y Cagigal en dirección a Armentia, donde encontramos la Basílica de San Prudencio, de origen románico. Por el Paseo del peregrino, alcanzamos una rotonda y seguimos por el arcén de la A-4163 hasta la pequeña población de Gometxa.*

km 5,6···· ***GOMETXA.*** *A la altura de la iglesia parroquial, tomamos a la derecha la carretera vecinal que, entre tierras de cultivo, se dirige hacia el suroeste. Cruzamos la A-4102 que conduce a Zumeltzu y alcanzamos Subijana de Alava.*

KMZ

GPX

eu es

# DONEJAKUE BIDEA
## CAMINO DE SANTIAGO

Barrualdeko Bidea 6 El Camino del Interior

## VITORIA-GASTEIZ LA PUEBLA DE ARGANZÓN (ARGANTZUN)

Km. 22 | 273m. | 4h. 15'



United Nations Educational, Scientific and Cultural Organization

**Routes of Santiago de Compostela: *Camino Francés* and Routes of Northern Spain** inscribed on the World Heritage List in 1993

EUSKADI
BASQUE COUNTRY



## EZ GERATU EZAGUTU GABE!
## ¡NO TE LO PIERDAS!

Gasteiztik irtenda, Armentian XII. mendeko San Prudentzio basilika ikusiko dugu. Jatorri erromanikoa duen tenplu hori Euskadiko lehenengo katedrala izan zen, eta bertakoek gehien maite duten tenpluetako bat da, inguruko zelaietan izaten baitira arabarren zaindari den San Prudentzioren jaiak.

*A la salida de Vitoria-Gasteiz encontramos la basílica de San Prudencio en Armentia, del s. XII. Este templo de origen románico fue la primera catedral del Euskadi y uno de los templos más queridos del territorio, en cuyas campas se celebran las Fiestas de San Prudencio, patrón de Álava.*





Etapa amaitzeko, Argantzunen alde zahar eder bezain interesgarria aurkituko dugu, Zadorra ibaiaren gaineko zubi ikusgarria, antzinako ospitaleak eta Antiguako Andra Mariaren baselizak osatzen duten multzoa, eta armarridun etxea, herriaren iragan ospetsuaren adierazgarri.

*La Puebla de Arganzón nos aguarda en el final de etapa con un bello e interesante Casco Histórico, el puente sobre el Zadorra, el conjunto del antiguo Hospital y ermita de Ntra. Sra. de la Antigua y casonas blasonadas que pregonan su insigne pasado.*



## TELEFONO INTERESGARRIAK
## TELÉFONOS DE INTERÉS

| | |
|---|---|
| Gasteizko Turismo Bulegoa<br>*Oficina de turismo de Vitoria-Gasteiz* | 945 161 598<br>945 161 599 |
| Miranda Ebroko Turismo Bulegoa<br>*Oficina de turismo de Miranda de Ebro* | 947 320 303 |
| Donejakue bideen lagunen elkartea (Araba)<br>*Asociación de Amigos del Camino de Santiago (Álava)* | 945 144 794<br>609 472 446 |
| Donejakue bideen lagunen elkartea (Miranda Ebro)<br>*Asociación de Amigos del Camino de Santiago (Miranda de Ebro)* | 947 314 080<br>671 883 129 |
| Larrialdiak<br>*Emergencias* | 112 SOS DEIAK |

# Bidezatia / *Tramo*
# SUBILLANA GASTEIZ / SUBIJANA DE ÁLAVA LA PUEBLA DE ARGANZÓN (ARGANTZUN)

km 10,1 **SUBILLANA GASTEIZ.** Herriaren goialderantz abiatuko gara; hor Simon de Anda Salazar jauregi bikaina ikusiko dugu, iturri baten ondoan, indarberritzeko oso ondo etorriko zaiguna. Subilla atzean utzita, gorantz jarraituko dugu San Migel mendaterantz, Langraiz Okako espetxe berriaren gainetik igaroko gara eta erkamezti batean sartuko gara. Behin mendatera iritsita, Trebiñuko Billa Oka herrira jaitsiko gara.

km 14,8 **BILLA OKA.** Billa Oka herrira iritsi garelarik, errepidetik jarraitu behar dugu Argantzun herrirantz; hor hirigune historiko interesgarria, Erdi Aroko zubia Zadorra ibaiaren gainean, antzinako ospitalea eta Antiguako Andra Mariaren baseliza ikusiko ditugu, herriaren iragan ospetsuaren adierazgarri.

km 10,1 ***SUBIJANA DE ÁLAVA.*** *Nos dirigimos a la parte alta de la población donde encontramos el imponente palacio de Simón de Anda y Salazar junto a una fuente donde reponer fuerzas. Seguimos ascendiendo dejando atrás Subijana en dirección al portillo de San Miguel pasando sobre la nueva cárcel de Nanclares y adentrándonos en el quejigar. Una vez alcanzado el portillo, descendemos a la población treviñesa de Villanueva de Oca.*

km 14,8 ***VILLANUEVA DE OCA.*** *Una vez en Villanueva, ya sólo resta continuar por la carretera en dirección a La Puebla de Arganzón donde nos aguarda su interesante casco histórico, el puente medieval sobre el Zadorra y el antiguo hospital y la ermita de Ntra. Sra. de la Antigua, que dan muestra de su ilustre pasado.*

www.euskadituresmo.eus

## KONTUAN HARTU BEHARREKOAK
## A TENER EN CUENTA

• Subillana Gasteizen, Anda Salazar jauregiak elefante bat du armarrian, eta jauregiaren parean kantinplora betetzeko iturri bat aurkituko dugu, San Miguel mendatea igotzeko ongi betea izan beharko dugu-eta.

• *En Subijana de Álava frente al palacio de Anda y Salazar, que reconoceremos por su escudo de armas con un elefante, encontraremos una fuente en la que rellenar la cantimplora antes de acometer la ascensión al portillo de San Miguel.*

• San Migel mendatea igaro dugularik, Billa Oka herrira jaisteko bi seinale daudela konturatuko gara. Arabako ibilbide osoan lagungarri izan ditugun metalezko baliza horiez gain, orain zuriak ere aurkituko ditugu, Bideeren Burgoseko arduradunek jarritakoak. Batzuek zein besteek Billa Okara eramango gaituzte, ezusteko handirik gabe.

• *Una vez pasado el Portillo de San Miguel encontramos doble señalización en la bajada a Villanueva de Oca. Además de las conocidas balizas metálicas amarillas que nos han acompañado en todo el periplo alavés, encontraremos otras blancas instaladas por los responsables burgaleses del Camino. Unas u otras nos conducirán a Villanueva de Oca sin grandes sobresaltos.*



